

# MARX, JESUS ETA BURGESKERIA

Bien artean 1800 urte. Alde aundia biak berdin izateko.

Jesus'ek: neba-arrebak zerate Aita bakar baten seme-alabak zeratelako.

Marx'ek: Anaiak gera eta tximiñoen lengusu, materia utsetik sortu geraldako.

Eta abar...

\*\*\*

Euskalerriko semeak, kristau zaarrak, Kristautasuna zapuztu ondoren, ateismora jotzen ari dira...

Ori, guzi ori, Burgeskeriaren aurka.

Burgeskeria zaku zaar aundi bat dezu, konbeni ez zaizkigun gauza guztiak bertan sartzeko:

Kristautasuna, burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-ikastola (guk geok erabilten ez ditugunak) oiek burgeskeria dituzu...

Zenbait euskal-aldizkari, burgeskeria dituzu...

Euskera bera ere (nolakoa dan) burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-alkarte (gureak ez diranak) burgeskeria dituzu...

\*\*\*

Burgeskeriaren aurka amorratuta, baiña **itzez** bakar-bakarrrik.

**Egitez**, ordea, burgeskeriaren alde: aotan ainbeste dezuna, kolkoan palta, alegia. Ez nijoa gauzak banan-banan aztertzeraz, ez. Goiko malla batean geldituko naiz.

\*\*\*

Gizarte burges-aberatza **berez** atea da: aberastasuna bait du burgeskeriak elburu bakar. Gizarte-aberatza berez ateo eta berez burges.

Marxismoa ere atea da.

Emen alkar jotzen dute Marxismo eta Burgeskeriak.

Marxismo ateoak, beste aldetik berriz, erri pobreak aberastasunera eraman nai ditu eta ori lortzen duanean, orra Marxismoaren ondoren, gizarte aberatz atea, burgesa ura ere... aberastasunak eramaten bait gaitu burgeskerira.

Guk asiera nundik degun Burgeskeriari ajolik ez. Baiña, nora goazen eta zertarako geran, orrek bai, orrek ajola aundia ematen dio Burgeskeriari... Zertara-

ko geran...? Dirua sortzeko, onurea sortzeko, irabazia ateratzeko...

Burgeskeriaren elburu bakarra, urrea.

Bitartean Jainkoaren izen ona ondatzen dala...? Ajolik ez.

Gizonaren izana ondatzen dala...? Ajolik ez,

Izadiaren giroa ondatzen dala...? Ajolik ez.

Dirua eta irabazia, besterik ez dago emen.

Eta Marxismoak zer...? Marxismoari gure sortzerako iturburuak kezka ekartzen diote eta erabakia artuta dauka: materia utsetik sortu gera gu.

Materiatik sortu bagera, materia degu elburu, gu sortzean besterik ez zalako. Eta materiarik materiarena urrea degu: onek bait du pixua aundi eta kolorea eder...

Urrea, Burgeskeriak bezela.

Urrea, onurea, irabazia, orra **berez** ze elburu agertzen diran... Beste elburuak kanpotik erantsita daude, eta zenbait Kristautasunetik artuak, millatik goraka urte zituan Europa kristauan sortu bait zan Marx eta bere Marxismoa.

Orra nun Marxismoak eta Burgeskeriak berriz ere alkar jotzen duten: biak ateo eta biak materia elburutzat.

Biak alkar borobildu dute: Burgeskeri ateotik Marxismo ateora, Marxismo ateotik berriz ere Burgeskeri ateora...

Kaiolan sartuta gaudela, alegia, arratoia bezela.

\*\*\*

Kaiola ortatik irtetzeko Marxismoari (al bada) gora dijoan atea iriki bearko zaio: materia utsezko atea besterik ez badu, ate ortatik, berriz ere, gizarte ateo aberats burgesera goaz...

Materia utsa jaun da jabe. Jainkorik ez, espiriturik ez.

Marxismoa eta Burgeskeria alakarren osagarri, alkarri lotuta ateismoaren ardatzean, jira ta buelta, beti berean...

Kristautasuna tesis bada eta Marxismoa antitesis, sintesis bat billatu bearko, edo Kristautasunera berriz biurtu.

ARRINDA'TAR ANES (1972)